

Jose Troyano "El Tati"

MILCLO
552kg



GAME PRO, EUSKAL "A HIRUKOITZA" LORTZEKO LEIHA

1990eko hamarkadaren bigarren erdian izugarri bideo-joko gutxi ekoitzi ziren Euskal Herrian. *Khazzad-Dum*, *Rescate en el Golfo*, *Comando Tracer* eta *Risky Woodsen* sortzaileen lekukoa hartzekoa zen garatzaileen bigarren belaunaldiak Euskal Herritik kanpora jo zuen bizimodua ateratzera. Egin ziren bideo-joko bakarrak Ikastolen Elkarteak eta Administrazio publikoak argitaratutako *serious game* motako hezkuntza alorreko jokoak izan ziren.

Edonola ere, 2000. urte inguruan bideo-jokoen euskal estudio handi bat sortzeko lanak hasi ziren. Asmo handiko proiektua zen: superproduktzio batekin sartu nahi zuen industriaren ate nagusitik. Game Pro SA izeneko enpresa-abenturak Bilbon zeukan egoitza nagusia, eta 60 milioi pezetako (360.607,26 euro) oinarri finantzarioarekin abiatu zen. Enpresak dena zeukan bere alde, Euskal Herria bideo-jokoen negozioko maila gorenean jartzeko.

Sorrera

Game Pro bilbotar enpresaren historiak lotura estua zeukan bere sustatzaile nagusienetako batekin: Imanol Ibarrondorekin. 1967ko martxoaren 27an Bilbon jaio eta Enpresa Zientziak ikasi ondoren EHUⁿ Kirol Erakundeen Kudeaketa master bat eginda zeukan Ibarrondok ez zekien ezertxo ere bideo-jokoen munduaz. Beste mundu batean mugitzen zen Ibarrondo, eta gazte askoren ametsa lortua zuen gaztetan: 21 urterekin futbolaria profesionala bihurtzea¹.

Hurrengo urtean, Rayo Vallecanok fitxatu zuen gure atzelaria, eta horri esker lehen mailan aritu zen 2.469 minutuan. Madrilgo taldeak kategoria galdu zuen, ordea, eta lehen mailara itzultzeko borrokatu egin behar izan zuen hurrengo bi urteetan. 1992-1993 denboraldian,

1. 1988-1989 denboraldian, garai hartan Futbol Profesionalaren Ligako (LPF) bigarren mailan zebilen Sestao futbol-taldean.

Ibarrondo etxera itzuli zen, jokalaria gisa hazten ikusi zuen Sestaora, eta zortzi urte geroago futbola uztea erabaki zuen².

Futbolak denbora ia guztia hartzen bazion ere, Ibarrondok ederki zekien bere futbolari profesionaleko denborak muga bat zeukala. Promosport sortu zuen, orduan, kirol-ekitaldiak antolatzen zituen enpresa, eta ordu erdiko iraupena zeukaten *Esto es fútbol* izenburuko VHSko zortzi bideo ekoitzi zituen. «Futbolari buruzko dibulgazio-bideoak ziren eta 3Dn egindako infografiak eta artxiboko irudiak zeuzkaten», azaltzen du Ibarrondok. Bideo haiek egiteko garai hartako futbolari handien laguntza izan zuten.

El Mundo egunkariarekin saldu ziren, eta Espainia osoan banatu ziren. Irailean hasi ziren bideoak banatzen, «futbol-denboraldi hasierarekin batera, eta 200.000 ale banatu ziren gutzira». Futbolari ohiak gogoratzen duenez, bideoek hasiera batean harrera on samarra izan bazuten ere, azkenerako «porrot ez egiteko adina baino ez zituzten saldu». «Konturatu nintzen formatu hura zaharkituta zegoela guztiz, eta bideo-jokoak zirela indarrez zetorrena».

Hausnarketa hori abiapuntutzat hartuta, futbolari buruzko joko bat egiteko gai izango zen bideo-jokoen estudio bat sortzeko aukera aztertzen hasi zen bilbotarra 1999an. «Dinamic Multimediaren *PC Fútbol* jokoak ezagutzen nituen», baina Ibarrondoren proposamena haratago zihoan. «Abentura grafiko bat sortu nahi genuen». Urte eta erdiko epean ezaugarri horietako proiektu bati heltzeko gaitasuna, baliabideak eta babesa izango zuen konpainia diseinatu beharra zuen horretarako.

Bideo-jokoen garapen-enpresa hura sortzeko grinak akuilatuta, baina sektorearen gaineko ezezagutza erabatekoa, prototiporik eta lan-talderik ez, eta negozio-plan bat baino ez zeuzkala, zenbait inbestitzailearen interesa bereganatzea lortu zuen Ibarrondok. «Madrilgo arrisku-kapitaleko funts batek jarritako 60 milioi pezetako (360.607,26 euro) kapitalarekin sortu genuen enpresa», diosku.

2. «Beste hiru urte jokatu nuen Sestaon, beste lau Barakaldon, eta beste bat Sestaoko San Pedro hirugarren mailako taldean».

Fundación Retevisiónek eraturako eta Europako Inbertsio Bankuaren parte hartzea zeukan EBM Principia FCR arrisku-kapitaleko funtsaren babesa izan zuen Game Proren sorrerak. Konpainiaren hasierako ekarpena egiteaz gain, akzioen %50ren jabetza eskuratu zuen EBMk. Gainerakoa partikularren esku gelditu zen, eta haien artean zeuden Bilboko enpresako zuzendaritzako kideak³.

Izenari dagokionez, Game Proren sortzaileak ez daki nondik sortu zen. «Game Producers edo Game Professionals izango zen jatorria. Egia esan ez nuen izena askorik landu».

Euskal A hirukoitza sortzen

2000 urte hasieran, Bilboko Areatza kaleko Surne eraikineko bosgarrenean kokatu zen bideo-jokoen enpresa, 207 eta 208 zenbakiko bulegoetan. Futbol-munduan oinarritutako abentura grafiko bat sortzeko ideia ordurako guztiz baztertuta zegoen, baina. Munduaren bakarkako itzulia belaontzian egiten duen Vendée Globe estropada⁴ gaitzat hartuko zuen bideo-joko bat sortzea zen egitasmo berria.

Su txikian prestatu zuten jokoa «bi hilabete luzetan», azaltzen du Ibarrondok. Bela-estropadetan aritutako euskal kirolariengana jo zuten aholku eske, Vendée Globeren 1992-1993ko edizioan seigarren gelditutako José Luis Ugarterengana⁵, esate baterako.

Jokoaren dosierra guztiz prestatuta eduki arren, Game Proren lan-bileretako batean bideo-jokoa alde batera uztea erabaki zuten bazkideek, «haren konplexutasun teknikoarengatik eta itsasoko probak simulatzeko aintzat hartu beharreko aldagai ugariengatik, itsasoa, eguraldia eta haizea, adibidez», azaltzen digu Ibon Tolosanak (Bilbo,

3. Sánchez, Mónica. «El primer tercio de Gamepro». *Ariadna* gehigarria, 42. zk. *El Mundo*. (2001eko apirilaren 19a).

4. Vendée Globeren historia. <http://www.vendeeglobe.org/en/historic/1989-1990.html> [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 15a]

5. Hilberria. «José Luis Ugarte, el regatista solitario». *El mundo.es* (2008ko uztailaren 27a) <http://www.lavanguardia.com/hemeroteca/20120710/54322308881/eta-secuestro-asesinatos-concejales-pp-miguel-angel-blanco.html> [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 15a]

1972), enpresan jardundako aurreneko programatzaileetako batek. «Jokoak hedapen handia izango zuen Interneten, beste pertsona batzuekin online jokatzekoa baitzen, eta, jokalaria bakoitzaren kokapena denbora errealean jakiteko aukera ematen zue».

Jokoa bazterrean gelditu eta gero, *brainstorming* bat prestatu zuten. Zer-nolako bideo-jokoak egin nahi zituzten Bilbotik? Aurkeztu ziren proposamen guztien artean –*Diablaren* (Blizzard, 1996) tankerako joko bat sortzeko aukera ere aztertu zuten–, *Torero. Arte y pasión en la arena* (*Torero*) martxan jartzea erabaki zuten azkenean.

TORERO. ARTE Y PASIÓN EN LA ARENA

Game Proren administrazio-kontseiluaren oniritzia lortu eta gero, Imanol Ibarrodok hamabost lagunez osatutako lan-taldea bildu zuen, Stefan Schuster-en zuzendaritzapean, PCrako tauromakiako lehen simulagailua izango zena sortzeko.

Bideo-jokoen historia arretaz aztertuz gero, ikusiko dugu *Torero* ez zela gai hori landu zuen lehen softwarea izan. 1984an, Coreland japoniar konpainiak *Bull Fight*⁶ izeneko bideo-jokoa garatu zuen. Segak banatu zuen jokoa jolas-makinetarako⁷. Urtebete geroago, Dinamic enpresa espainiarrak *Olé Toro* (Dinamic, 1985) merkaturatu zuen, ZX Spectrum eta Amstrad CPCrako. Erretroinformatikaren zaleek gehiago oroitzen dute joko hori Ingalaterran eragin zuen zalapartarengatik⁸, haren kalitatearengatik baino.

Amstrad CPCek, MSXk eta Commodore 64ek ere izan zuten beren urre, zeta, odol eta eguzki dosia, *Olé (Raging Beast)* jokoarekin. Oharkabean pasa zen lan hori VIFI Internationalek argitaratu zuen 1985ean, eta

6. *Bullfight / The Tougyuu (牡闘牛)* – Arcade (1984). <http://www.hardcoregaming101.net/bullfight/bullfight.htm> [Online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 15a]

7. Xehetasun gehiago: http://www.arcade-museum.com/game_detail.php?game_id=7231 [Online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 15a]

8. Esteve, Jaume. «Olé, toro: Dinamic, las orejas y el rabo». *IGN España*. (2012ko azaroaren 16a) [Online] <http://es.ign.com/retro/61595/blog/ole-toro-dinamic-las-orejas-y-el-rabo> [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 15a]

Firebirdek berriro merkaturatu zuen bi urte geroago. Jawx izan zen jatorrizko garatzailea.

Aurreko jokoak *arcade* motakoak baziren ere, Torero egiteko garaian «zezenketari errespetua» erakusten zion bideo-joko bat egin nahi izan zuten, «zezenketa-simulagailuen arteko joko nagusia» bihurtu nahi baitzuten, aitortzen du Ibarrondok. Asmo hori buruan, aurreproduktzio-garaian, Gabriel de la Fuente Club Taurino de Bilbao elkarteo presidentea izan zuten aholkulari.

Torero hamabi hilabeteko epean egingo zutela kalkulatu zuten. Lehen fasean, jokoaren motorra egiteko eta toreroaren eta zezenaren mugimenduak hautemateko aukera teknologikoak aztertu zituzten.

«Garai hartan oraindik fase esperimentalean zegoen motor bat erabiltzea erabaki genuen azkenean: Maya Real Time SDK izeneko», gogoratzen du Iker Jamardo (Gasteiz, 1977) *Torero* proiektura bildutako azken programatzaileak. «Grafistek Photoshop-a eta 3D grafikoak eta modelatzea egiteko Maya izeneko softwarea erabiltzen zuten, hasiera batean oso erraz txertatzen baitzen jokoaren motorrean». «Maya Real Time SDKren motorra ez zegoen guztiz garatuta. Zenbait alderdi inplementatu gabeak zeuzkan eta Fernando Uresandi lankideak arazo horiek konpondu egin behar izan zituen», dio, bestalde, Ibon Tolosana programatzaileak. Programazio-lengoaiari dagokionez, C++ erabili zuten Windowsen, Visual Studio editorea eta Microsoften SourceCoderekin, kodearen bertsioa kudeatu ahal izateko.

Torero jokoaren lorpen handienetako bat mugimendua hautemateko teknika erabiltzea izan zen, horrekin toreroak kapotearekin eta muletarekin egindako 28 paseak PC-pantailara eramatea lortzen baitzen. De la Fuenteren aholkuei jarraiki, Game Proko lan-taldea Iker Javier Lara⁹ (Laudio, 1979) toreroarekin jarri zen harremanetan, eta bideo-jokoaren protagonista izango zen José Troyano *El Tati* pertsonaia osatzeko modelo birtuala izan zen Lara.

Era berean, Club Taurino de Bilbaoko presidentek gestioak egin zituen Antonio Pérez-Tabernerok Angoso ganaduzale-familiak jokoaren

9. Rafael, Patricia. «No sé si mi parentesco con Ibarretxe me ha ayudado». *El País*. (2002ko abuztuaren 24a)

garapenean lagundu zezan. Zezenketa bat antolatu zuten Salamancan zeukaten finkan, zezenaren portaera digitalki hautemateko. Lana «konplexu samarra» izan zela dio Ibarrondok.

Toroslidia.com atariak¹⁰ egindako elkarrizketa batean, Stefan Schuster Game Proko zuzendari teknikoak azaldu zuenez, prozesua bi zatitan banatu zuten. «Batetik, zezenketei buruzko bideo eta liburuen azterketa sakona egin genuen, eta profesionalengana ere jo genuen zuzenean, aholku eske. Bestetik, zezenen mugimendu posibleak grabatu genituen, zezenketa batean. Hiru kamera erabili genituen, irudiak aldi berean hiru angelutatik grabatzeko, eta triangelaketa aplikatu genien gero. Animazioak egiteko erabili genituen 3D espazioko mugimenduen datuak atera genituen kalkulu horiekin». Eduki hori guztia biltzeko, Donostiako STT Systems enpresaren esperientzia izan zuten lagun.

Zezena zezenketako ekitaldi bakoitzean nola mugitzen den aztertzeo bakarrik zenbait hilabete behar izan zituzten. «Zezena zezendegitik ateratzean gertatzen den aldaketa ebaluatu beharra zegoen, nola doan indarra galtzen, nola aldatzen den haren bulkada lehen, bigarren edo hirugarren ekitaldiko oldarraldietan...», azaltzen du Shusterrek. Datu gordin guztiak bildutakoan, lan-taldeko lau kidek —Roberto Fernández de Gamboa, Joseba Garro, Guillermo Pérez Larrauri¹¹ eta Ricardo Uriostek— urtebete eman zuten informazio hura guztia jokora egokitzen.

Ubisoftek bat egiten du proiektuarekin

Torero egitasmoko atal guztiak martxan zeudela, banatzaile bila hasi zen Ibarrondo, eta Madrileraja joan zen, garai hartan Espainian lan egiten zuten bideo-jokoen banaketa-enpresekin biltzera. Dinamic, Proein SA

10. «Stefan Schuster, responsable técnico del videojuego taurino Torero: "Hemos tenido que analizar el comportamiento del toro para obtener 68 movimientos diferentes"». (2002ko abenduaren 10a). <http://www.toroslidia.com/2002/12/10/139/> [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 16a]

11. Artista grafiko hau (Bilbo, 1970) *Reflections Interactive* enpresan hasi zen bideo-jokoak egiten, 1998 urte hasieran. Hamasei hilabetez zehar *Steam* bideo-jokorako proiektua garatzen aritu zen (bertan behera gelditu zena, 1999an) eta *Driverren* (PC, 1991) lan-taldean parte hartu zuen, halaber. Etxera itzultzean, Game Pron hasi zen lanean, eta Ibon Tolosanaren hitzetan «bestelako ikuspegi ekarri zuen, are kritikoa».

eta Electronic Arts-ekin egindako bilerek ez zuten emaitza onik utzi: ez zeukaten interesik Game Proren lanean. Ubisoft Espainiak, ordea, ez zion bizkarra eman futbolari ohiak aurkeztutako ideari. Alderantziz, potentziala ikusi zion *Torero* bideo-jokoari.

Roberto Rollón Ubisoft enpresa multinazional frantsesak Espainian duen marketin-zuzendariak azaltzen duenez, *Torero* «ideia ona eta orijinala» iruditu zitzaion, «nahiz eta bagenekien lehenago ere egin izan zirela antzeko lanak, kalitate gutxirekin izan arren». «Merkatua nola zegoen baloratu genuen –jarraitzen du–, eta ikusi genuen ez zegoela lehiarik gai horretan». Gainera, aitortzen duenez, Ubisoft Espainiak produktu berriak behar zituen bere katalogorako «eta enpresa nagusiak –Ubisoft Frantzia– tarte handi samarra ematen zigun abentura lokalak bultzatzeko».

Banaketa-enpresari iruditu zitzaion zezenketa-simulagailuak «harrera ona izan zezakeela jende arruntaren artean, bai kioskoetako salmenten bidez, bai beren ohiko kanalen bidez¹²». Arriskuari dagokionez, Rollónen esanetan «ez zen oso handia Ubisoftentzat», Bilboko bideo-joko enpresak bere gain hartzen baitzuen marketinaren eta sustapenaren kostuaren zati handi bat.

lido horretan, *Toreroren* garapenean izandako gertakizunik garrantzitsuenetako bat Julián López Escobar *El Julik* euskal bideo-jokoari emandako babesa izan zen. Aparteko toreroa zen *El Juli*, eta 2000. urtean ospea lortu eta gero goi-mailan zebilen zezenketa-munduan. *El Juliren* irudia erabiltzeko proposamena Roberto Rollónen taldeari bururatu zitzaion, «komunikazio-palanka» baten bila zebiltzala.

Urte batzuk lehenago, Ubisofteko marketin-zuzendaria Electronic Arts-en ibilia zen lanean, *FIFA* bideo-jokoaren Espainiako sustapenaren arduradun, eta argi ikusi zuen orduan jendeak bideo-jokoaren berri izango bazuen Espainiako futbol-izar baten irudia jarri beharra zegoela

12. Saltegi handiak, supermerkatuak eta denda espezializatuak.

azalean¹³. *Torerorekin* sustapen-eredu bera erabili zuen Rollónek, «baina eskala apalagoan», publiko objektiboa *FIFArena* baino txikiagoa baitzen¹⁴.

El Juli konbentzitzea baino ez zen gelditzen. Imanol Ibarrodok autoa hartu, eta toreroak Madril kanpoaldeko Arganda del Rey herrian zeukan *El feligrés* finkaraino gidatu zuen. «Haren aitarekin egina neukan hitzordua, goizeko bederatzietan. Sartzera gonbidatu ninduen eta, mahai batean, ordenagailua zabaldu nuen, bideo-jokoaren demo batekin», gogoratzen du. Une hartan, *El Juli* gora eta behera zebilen bere finkan, eta bideoa ikustera joateko deitu zuen aitak.

«Julián nire ondoan eseri, eta hantxe hasi nintzaion jokoa zertan zetzan azaltzen, eta esaten teknologia berriak erabiliz gazteak zezenketarekin zaletu nahi genituela *Toreroren* bidez», jarraitzen du Game Proko gerenteak. «Jokoa, zezena zezendegitik ateratzen da, pare bat pase egiten dizkiot, eta banderillak sartzeko lantzea iristen da. Orduan zezena haren aztarrika hasten da, eta hortxe botatzen du *El Julik*:

– Kontuz, oldartu egingo zaizu eta».

Nahikoa eta sobera izan zen hori. Zezenketari gaztea guztiz konbentzitura gelditu zen *Toreroren* potentzialarekin, eta bere irudia «modu altruistan» erabiltzen utzi zigun bai sustapenean, bai bideo-jokoaren azalean. Bideo-jokoa prentsaren aurrean aurkeztu zutenean esan zuenez, «jokoak nire lanbidea errespetatzen zuela ikusi eta gero» erabaki zuen *El Julik* hari babesa ematea. «Gainera, iruditzen zait lagungarria izan daitekeela gure mundua jende gaztearengana hurbiltzeko», eta jakinarazi zuen jokoa salmentatik berari zegozkion diru-sarrera guztiak kausa eta antolakunde sozialei eta zezenketaren aldekoiei emango zizkiela.

13. *FIFA 98* bideo-jokoaren espainiar bertsioak Raúl González futbolaria izan zuen irudi gisa, eta *FIFA 99k*, Fernando Morientes; biak ere Real Madrid CFkoak. «1999an EAtik joan nintzenean, urte hartako *FIFA* plana prest utzi nuen, Pep Guardiolarekiko negoziazioa barne».

14. Imanol Ibarrodo Game Proko zuzendari nagusiak *Mundotoro.com* egindako adierazpenen arabera, «Espainian bost milioi zezenketa-zale daude, horietatik 1,8k ordenagailua daukate eta 400.000k bideo-jokoetan aritzeko ohitura daukate». <http://www.mundotoro.com/noticia/i-torero-i-exito-inicial-de-ventas-tras-la-presentacion-de-el-juli-fotos/1174777> [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 16a]

Toreroren banaketari dagokionez, Roberto Rollónen arabera «banaketa-enpresak presentzia zeukan herrialdeetara» mugatu zen Ubisoft Espainiarekin sinatutako kontratua, «Espainiako eta Europako merkatuetara bereziki». Game Proren zuzendariak besterik dio, ordea, eta azpimarratzen du kontratua «haratago zihoala». «Espainian eta Frantzian ez ezik, AEBetan eta Mexikon ere banatuko zutela ziurtatu zidaten, eta Japonian ere zabaltzeko aukera aipatu zuten» .

2002 urte hasieran, urtebete pasatxo lanean jardun eta gero, amaituta zeukaten *Torero* bideo-jokoa. Bilboko estudioan hori uste zuten behintzat.

Ibarrondok Ubisoftek Madrilen zeukan bulegoan ikusi zuen *Toreroren* masterra, kalitate-kontrola egiteko. «Handik egun batzuetara, Antonio Temprano Ubisoft Espainiako zuzendari nagusiak hots egin zidan, eta esan zidan bertan behera gelditzen zela banaketa-akordioa, jokoak ez zituelako salgai jartzeko baldintzak betetzen. Ez zuela maila ematen, errore eta *bug* piloa zeukala, eta desastre hutsa zela».

Sei hilabeteko luzapena

Ubisoft Espainiaren eta Game Proren arteko elkarriketa hark ondorio ezin txarragoak izan zitzakeen euskaldunentzat. Erabakia berretsiz gero, enpresaren itxiera erabatekoa eragingo zuen. «Azkenean, Antoniorekin ordu erdiz aritu eta gero, haren konfiantza neureganatzea lortu nuen, eta sei hilabeteko epea eman zigun», gogoratzen du lasaituta Imanol Ibarrondok.

Albiste ona bazen ere, Game Prok ez zeukan luzapen hari heltzeko aurrekonturik. «Administrazio-kontseiluak egoerari eusteko beharrezko bultzada eta dirua jar zitzan saiatu nintzen. Zertxobait jarri zuten, baina ez behar bezain beste, eta, beraz, bazkide sortzaileok kapital gehikuntza bat egin behar izan genuen, likidezia-gabeziari erantzuteko». Egoera ekonomiko zail hari jarraiki, handik hilabete batzuetara martxan jarriko zituzten negozio-ildo alternatiboak aztertzen hasi ziren orduan.

Toreroren garapen osoa bi urte eta erdi luzatu zen azkenean. 115 milioi inguruko aurrekontuarekin (691.163,92 euro), euskal superproduktzioak

Ubisoften oniritzia jaso, eta 2002ko azaroaren 27an aurkeztu zuten, Madrilan, hedabideen aurrean, hiru aurkezpen desberdinetan. Lehen biak Tryp Reina Victoria hotelean egin ziren, zezen-munduko kazetariekin eta hedabide orokorretako kazetariekin egindako gosari banatan.

Azkenik, aurkezpen sozial bat antolatu zuten Las Ventas zezen-plazako etxabeetan, *El Juli* bera eta beste jende ezagun asko bertan zirela: Curro Vázquez, David Luguillano, Miguel Abellán, *El Tato*, Javier Vázquez eta Gregorio Sánchezen mailako toreroak, bai eta futbolari, musikari, flamenko-kantari eta kazetari zezen-zaleak ere¹⁵.

Egun gutxiren buruan salgai jarri zen *Torero. Arte y pasión en la arena* 4.995 pezetako salneurrian (29,90 euro). Urtebete geroago, bigarren aukera komertzial bat izan zuen bideo-jokoak, Espainia-mailako zenbait aldizkarik 5,95 euroan saldu zutenean.

Jokoaren ezaugarriak

Lehenago esan dugunez, *Toreroren* garatzaileek tauromakiaren artea ahalik eta modu zehatzenean islatuko zuen simulagailu bat sortu nahi izan zuten hasiera-hasieratik. Hori dela eta, jokatzeko hiru modu eskaintzen ditu jokoak: zezenketa-eskola, orgatxo batekin zezenketaren mugimenduak ikasteko aukera ematen duena; bira nazionala, Espainiako kategoria desberdinetako zezen-plazetan toreatzeko aukera ematen duena; eta nazioarteko bira, jokalaria benetako nahiz alegiazko nazioarteko zezen-plazetara eramaten duena.

Laugarren aukera bat ere badago: arrakastarako bidea. Jokalariak José Troyano *El Tati* izeneko alegiazko toreatzailearen ibilbidea bizitzen du, zezenketa-eskolan hasten denetik, traje distiratsua jantzi, alternatiba hartu, eta munduan barrena toreatzaile arrakastatsu gisa biran dabilenera arte. Pikadore eta banderilleroei ere ematen zaie protagonismoa jokoan, eta jokalariak haiek gidatu beharko ditu zezenketa osatzen duten hiru ekitaldietako bakoitzean.

15. Pérez, Rosario. «El Juli, arte y pasión en el ruedo virtual». *ABC*. 104. zk. (2002ko azaroaren 28a)

Joko-sistemari dagokionez, Ibon Tolosana programatzaileak azaltzen duenez, *Torero* azkenerako «konbo-joko bat izan zen». «Kontuan hartu behar da zezena zein distantziatik oldartzen da, botoi-konbinazioa erabiltzen hasteko une zehatza kalkulatzeko». Kontrol-sistemak 31 konbinazio desberdin eskaintzen zituen, eta horrek «asko zailtzen zuen» jokoaren erabilera.

Ahalik eta errealismorik handiena lortzeko, grafista-taldeak Espainiako nahiz nazioarteko lehen, bigarren eta hirugarren mailako hemezortzi zezen-plaza erreproduzitu zituzten digitalki¹⁶, eta AEBetako eta Japoniako birarako beste bi sortu zituen birtualki.

Harrera eta salmentak

Torero 2002ko Gabonetan iritsi zen dendetara, eta harrera ona izan zuen bai prentsa jeneralistaren¹⁷ bai zezenketan espezializatutako prentsaren aldetik. Bideo-jokoen alorreko hedabideek, baina, bestelako iritzia azaldu zuten.

Micromanía aldizkariak 100etik 84 puntu eman zizkion bideo-jokoari, eta *Torero* «oso joko zaila» zela nabarmendu zuen. «Oso jokagarri eta dibertigarria da kontrolatzen duzunean, baina orduak eta orduak eman behar dira zezenketa-eskolan, ganorazko zezenketa bat egin ahal izateko. Laburbilduz, joko ona eta ezin hobeto egina (nahiz eta akatsen bat edo beste izan). Nabari du esfortzu eta lan asko dagoela haren oinarrian»¹⁸. Informatika-munduko beste argitalpen batzuek, *PC Actualek* adibidez, hamarretik 6,9 puntu eman zizkioten *Torerori*.

16. Hauek dira jokoan agertzen diren zezen-plazak: Acho, Ambato, Bartzelonako Monumentala, Bilbo, Cáceres, Cádiz, Chinchón, Donostia, Iruñea, La Maestranza, Madril, Mérida, Mexiko, Nimes, Ronda, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza.

17. Hogeita hamarren bat hedabidek eman zuten «ordenagailuetarako 3Dko lehenbiziko zezenketa-simulagailua»-ren berri.

18. I.C.C. «Review. A Examen: *Torero*. La muerte suprema». *Micromanía*, 96. zk. 3. aldia. 60. eta 61. or.

José Manuel Fernández, *Spidey*, bideo-jokoen adituak *Meristation*¹⁹ web-atarirako egindako analisia askoz gogorragoa izan zen. «Tira, nola esan? Game Proren lanarekin antza daukan gauza bakarria bururatzen zait PCan sartzeko modukoa: Chayanneren²⁰ diskoa, *Torero* kanta daukana... Hura entzun eta gerria dantzan jartzea esperientzia atseginagoa da, inondik ere, *Toreroren* kontrolekin sufritzea baino».

Euskal superproduktzioa El Corte Inglésen apaletaraino eta Espainia osoko 800 saltokietaraino (saltoki handi nahiz denda espezializatuetara) iritsi zen. Espainiatik kanpo «zer edo zer saldu zen», Iparraldean eta Frantzia hegoaldean, «han bai baitago zezen-tradizioa».

Salmentei dagokienez, 25.000 eta 40.000 ale artean saldu ziren, kontsultatutako iturriaren arabera. Zenbaitek 50.000raino handitzen dute kopurua. Roberto Rollón Ubisoft Espainiaren marketin-zuzendariak askoz beheragotik jotzen du. «Biribilduta, *Torero*k 20.000 ale inguru saldu zituen, gehienak ere *retailer* tradizionalen²¹».

Salmentak gorabehera, argi dago ez zirela aski izan inbertitutako milioi euroa berreskuratuzeko²². Game Proko gerentearen iritziz, «beste merkatu batzuetan zabaldu izan balitz, emaitza bestelakoa izango zatekeen».

Porrot komertziala izan arren, Ibarrondo harro dago Bilbotik «bideo-jokoen munduko A hirukoitz hura pentsatu, garatu eta amaitzeko gai izan zen» hamabost lagunez osatutako lan-taldeaz. «Guretzat arrakasta handia izan zen garapen eta ikaskuntza aldetik —dio—, desertuan barrena abiatu ginen, eta helmugaraino iritsi ginen. Lehertuta, baina iritsi ginen».

19. Fernández, José María. «Análisis. Torero: Si hay que ser torero...». (2003ko urtarrilaren 20a) http://elpais.com/diario/2007/12/11/radiotv/1197327606_850215.html [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 17a]

20. Puerto Ricoko Elmer Figueroa Arce abeslariaren izen artistikoa.

21. «Guztira saldutako 20.000 aleetatik, kioskoan 5.000 besterik ez ziren saldu, %25», zehazten du Rollónek.

22. «Garapena eta marketina barne», ñabartzen du Imanol Ibarrondo Game Proko gerenteak.

JUEGÓN

Torero egiten ari ziren bitartean Game Proko zuzendaria oso kezkatuta zebilen, enpresak ez zeukalako diru-sarrera errepikaririk. Kezka horri aurre egiteko, jokalarien artean Internet bidez partidak egiteko aukera emango zuen joko-plataforma bat sortzea proposatu zuen Ibon Tolosana programatzaileak. Imanol Ibarrondori ideia bikaina irudituz itzaion eta administrazio-kontseiluak baiezkoa eman zuen 2000ko maiatzean. *Juegón* izena izango zuen plataforma berriak.

Teknologia-arduraduna (CTO) zen aldetik, Tolosanak hartu zuen proiektuaren gaineko ardura. Informatikako Ingeniaritza ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta, bere belaunaldiko beste asko bezala, bere ZX Spectrum Plusarekin *MicroHobby* aldizkaritik ateratako Basic lengoaiako pusketak kopiatuz maitemindu zen ordenagailuen-munduarekin. Institutuan zebilenean, gurasoek lehen PCa erosi zuten: Philips XT 8086 bat, monitore monokromoa, 5 ¼ko diskete-unitatea, disko gogorrik ez eta Hercules Graphics Card CGA txartela zeuzkana²³.

Unibertsitate-ikasketak amaituta, bi urte eman zituen AEBetan eta handik itzultzean Bizkaiko zenbait informatikako aholkularitza-enpresatan aritu zen. «Mundu hura ez zen niretzako modukoa», aitortzen du. Europako Software Institutura (ESI)²⁴ iritsi zen halako batean. Webmaster gisa jardun zuen, eta geroago lankide izango zituen Schuster, Alberto Berreteaga eta Raúl Otaolea programatzaileak ezagutu zituen bertan.

Imanol Ibarrondok munduaren itzulia egingo zuen estropadari buruzko bideo-jokoaren lehen proiektuko online arlo guztia zuzentzeko kontratatu zuen Tolosana hasiera batean, nahiz eta azkenean *Torero*k hartu zuen proiektu haren lekua. «Erabaki hura ezusteko handia izan zen niretzat. *Torero*k ez zeukan ezer Interneterako edo sarean jokatzeko pentsatua», eta, beraz, aldaketa harekin uzkurto beharrean, gure

23. Hercules Computer Technology, Inc.-ek 1984an sortutako eta fabrikatutako txartel grafikoa. 720x348 pixeleko pantaila-bereizmena eskaintzen zuen.

24. «Se presenta oficialmente el Instituto Europeo del Software». *ComputerWorld.es*. (1995eko urtarrilaren 27a) http://elpais.com/diario/2007/12/11/radiotv/1197327606_850215.html [online] [Kontsulta: 16 urtarrilaren 2016]

programatzaileak gerora *Juegón*²⁵ izenez ezagutuko zen *Gimmicks* proiektua aurkeztu zuen enpresa barruan.

Zenbait lagunek Internet bidez xake, partxis, domino nahiz musaren bertsio digitalean jokatzeko web bat sortzeko ideia ez zen batere berria. AEBetan ederki funtzionatzen zuen, baina Espainian ez zen halakorik existitzen «eta erraza zen hura kopiatzea».

*Juegón*eko hasierako taldeak hiru kide izan zituen: Alberto Berreteaga, Raúl Otaolea eta Ibon Tolosana bera. Lanari heldu eta lau hilabeteko epean, joko-plataforma online zegoen, hiru jokorekin: dama-jokoa, xakea eta musa. «Dama-jokoarena eta xakearena Albertok egin zituen, musarena Raúlek, eta *front-end*az eta *back-end*az²⁶ arduratu nintzen ni, hau da, datu-basearekin, webarekin, joko-bezeroarekin, txatekin eta zerikusia zeukanaz...».

*Juegón*en sortzaileak dioenez, 2000ko urrian webgunea martxan jarri zutenean, «zenbait unetan 30 lagun egoten ziren aldi berean konektatuta, Interneteko tarifa laua oraindik guztiz hedatuta ez zegoen garai batean». Handik bi hilabetera, 500 bat erabiltzaile errepikariko trafikoa zeukan *Juegón*ek. Hazkundera izugarria izan zen. 2002ko ekainean, 30.000 jokalaria pasatzen ziren egunero Game Proren plataformatik, «eta zenbait unetan 4.000 pertsona sartzen ziren aldi berean, puntako orduetan bereziki²⁷».

Erabiltzaile eta datuen gorabehera horri eusteko, 440 Mhz-ko nukleo bikoitzeko Sun Enterprise Ultra 10S zerbitzari bat erabiltzen zuen *Juegón*ek. Tolosanak dioenez, «hiru milioi pezeta (18.030,36 euro) ordaindu genituen zerbitzari harengatik». Geroago, Sun Netra ereduko beste hiru zerbitzari gehitu zituzten, jokoen mikrozerbitzuetarako.

25. Ibon Tolosanak gogoratzen duenez, www.juegon.com domeinuak «5.000 pezeta (30,05 euro) kostatu zuen».

26. Software-diseinuan, erabiltzaileekiko interakzioa gertatzen deneko zatiari esaten zaio *front-end*, eta *back-end*, berriz, *front-end*etik sartzen dena prozesatzen duen zatiari. Wikipedia. https://es.wikipedia.org/wiki/Front-end_y_back-end [online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 17a]

27. «Sarrera gehienak 14h-etan, 18h-etan, gaueko 12etan eta goizeko 6etan izaten ziren», zehazten du Tolosanak.

Denborarekin, *Juegón*en hasierako hiru jokoetatik hogeira igaro ziren. Izenburu bakoitzak gela batzuk zeuzkan, 64 lagun aldi berean jokatzeko gehienezko edukiera zeukatenak. Gela haietan, jokalariak elkarren artean lehiatu zitezkeen, eta berriketan aritzeko aukera ere bazegoen, berehalako mezularitza zerbitzu baten bidez. Ustekabekorik gertatuz gero joko guztiak etengabe eskuragarri zeudela bermatzeko, erabiltzaileen topalekuak hainbat zerbitzariren artean zeuden banatuta.

Tolosanaren iritziz, jokoak programatzeko erabilitako Java teknologian zetzan minijokoen webgune haren arrakasta. Gainera, bezeroek ez zuten ezer deskargatu beharrik jokatu ahal izateko. «Martxan jarri genuenean, *Juegón*ek Java kodeko 40.000 lerro zeuzkan». «Kodea efikaza zen, baina ez efizientea —dio gaur—, 2000ko tresnak ez baitziren hamahiru urte lehenagokoak. Dena den, bere egitekoa ezin hobeki betetzen zuen, eta ez zuen etengabeko arretarik eskatzen», azaltzen du harrotasunez.

Eredu-aldaketa

Juegón doakoa izan zen ia bi urtez. «Erabiltzaile-kopurua handitu eta, horrela, geroago plataforma saldu ahal izateko ohiko eredua zeukan», azaltzen digu *Juegón*en sustatzaileak. Baina joko-ataria hainbeste hazi zen, Game Prok zazpi pertsona kontratatu behar izan baitzituen, eta mantenuaz arduratzen zen dibisioa garapen-dibisioa zegoen eraikineko 404. bulegora aldatu zuten. «Jokalari anitzeko jokoen erreferentzia zen *Juegón*, gaztelaniaz mintzo zen munduan», azpimarratzen du Tolosanak.

Torerok izandako emaitza kaskarrak likidezia-gabezia eragin zuten estudioan eta, horren ondorioz, zuzendaritzak bere negozio-eredua birpentsatzea erabaki zuen. Hartu zuten lehen erabakietako bat *Juegón* goizetik gauera ordainketa-plataforma bihurtzea izan zen. Erabaki hark ika-mika handia piztu zuen *Juegón* barruan eta kanpoan.

2003ko martxoan, 2.0 bertsioarekin egin zuten topo erabiltzaileek. Ordura arte, edozein jokalari gonbidatu gisa sartu, eta bertako zerbitzuak erabiltzea zeukan. Baina bere goitizena edo jokoan pilotutako puntuen historiala gorde nahi izanez gero, erregistratu egin behar zuten. «2.0 bertsio berriarekin, beren profila eta puntuazioa

gorde nahi zuten jokalariek SMS Premium bat ordaindu behar zuten 30 egunetik behin», argitzen du Ibarrondok.

Bisitarien kopurua berehala hasi zen murrizten. «Eguneroko 30.000 erabiltzaileetatik 20.000ra jaitsi ginen», azaltzen digu Tolosana *Juegónen* CTOak. Halere, ordainketa-eredura jauzi egin zuten erabiltzaileen kopurua %80ra iritsi zen²⁸. «Egundoko arrakasta izan zen», gogoratzen du. «Batere dirurik ez irabaztetik zazpi lagunen soldata, bulegoa, zerbitzarien mantenua... ordaindu ahal izateko adina diru-sarrera sortzera igaro ginen. Zenbaki beltzetan geunden!».

Denborarekin, *Juegónen* ordainketa-sistema atomizatuz joan zen, «SMS Premiumen kostuaren erdia operadoreek eramaten zutela eta». Beste aukera batzuen bila hasi ziren, beraz, eta aitzindariak izan ziren Espainian kreditu-txartela bidezko ordainketa-sistema jartzen eta kreditu birtualen erosketan.

Minijokoen plataforma besteren webguneetan txertatzea izan zen bultzatu zuten beste negozio-arlo bat. Hamazazpi markatara eraman zituzten beren jokoak: eresMas, Ozú, Prisa, Vocento taldeko webguneak, Real Madrid, Heraclio Fournier, Terra... «*Juegónen* edukiak gune horien irudi korporatibora egokitzen genituen, urteroko kanon baten truke».

2003ko azken lauhilekoan, Bizkaiko bideo-jokoen enpresaren fakturazio osoaren %30 *Juegóni* zor zitzaion. Horrek oxigeno pixka bat ematen zion zauri hilgarria zeukan Game Pro enpresari.

Ibon Tolosanak 2005ean utzi zuen enpresa, Game Prok azkenean hartzekodunen konkurtsoa deklaratu baino lehentxeago. Enpresaren itxiera ordenatua egiten zuten bitartean, *Juegónek* martxan jarraitu zuen. Hainbestearino, konkurtsoko administratzaileak ez baitzuen

28. Imanol Ibarrondo: «Gure komunitateak izan zezakeen beherakada zen gure kezka nagusia, horrek arriskuan jarriko baitzuen gure proiektuaren bideragarritasuna. Halere, eguneroko erabiltzaileen eta erabiltzaile errepikarien beherakada %20 baino gutxiago izan da». Del Moral, José. «La plataforma de juegos Juegon.com consigue pasar al 80% de sus usuarios a una versión de pago». <http://gananzia.com/la-plataforma-de-juegos-juegoncom-consigue-pasar-al-80-de-sus-usuarios-a-una-version-de-pago> [Online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 16a]

2013ko ekainera arte agindu plataformako azken zerbitzaria deskonektatzea²⁹.

MILIOI ASKOKO ZORRA

*Juegón*ek sortutako irabaziei esker, Imanol Ibarondo Diruzaintzarekin zeukan zuloa gutxituz bazihoan ere, pertsiana ez ixteko beste aukera batzuen bila hasi zen. «Nahiz eta *Torero* zama handia izan, enpresarekin jarraitzea zen nire asmoa. Sinestuta negoen ordenagailuetarako superproduktzio bat kaleratzeko gai izan baginen, berriz egiteko gai izango ginela».

Zeuzkan kontaktuen bitartez Arturo Pérez-Reverte idazlearen agentearekin jarri zen harremanetan, eta Alatraste kapitainaren abenturen liburu-sagan oinarritutako bideo-joko bat egitea proposatu zion³⁰. «Gustatu egin zitzaion proposamena», dio Ibarrendok. «Hiruzpalau milioi euro inbertitu, plantilla handitu eta, rol-jokoen ukitu batzuekin, Alatraste kapitainari buruzko abentura grafiko bat sortzea zen asmoa». «Eta jokoak filmarekin batera atera nahi genituen», jarraitzen du, urte batzuk geroago Agustín Díaz Yanesek zuzendutako filmari erreferentzia eginez.

Alatristeren bideo-jokoa egiteko proiektua beso azpian hartuta, Game Pro finantzazio bila hasi zen berriro ere. «Kapital-zabalkuntza hura beharrezkoa zen, *Torero* nazioartean zabaltzeko hitzarmen bat itxear baikeunden, eta gure plantilla osoari eutsi nahi genion gure bigarren proiektuari heltzeko». Orduko hartan, goi-mailako teknologia-enpresetan inbertitzen zuen Elkano XXI arrisku-kapitaleko funtsaren bidez iritsi zen babes ekonomikoa. Funtsak enpresaren akzioen %22 erostea erabaki zuen, halaber³¹.

29. Antza denez, *Juegón* plataformak Game Prok hartzekodunekin zeuzkan betebeharrei aurre egiten jarraitzeko «adina diru-sarrera» sortzen jarraitzen uen.

30. *Las aventuras del capitán Alatraste*. <http://www.perezreverte.com/capitan-alatraste/> [Online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 17a]

31. Del Moral, Jose. «El Gobierno Vasco, las cajas, Juan Abelló e IBERMÁTICA entran en el capital de Gamepro». <http://gananzia.com/el-gobierno-vasco-las-cajas-juan-abello-e-ibermatica-entran-en-el-capital-de-gamepro> [Online] [Kontsulta: 2016ko urtarrilaren 16a]

Ekarpen ekonomiko horri esker, Game Prok bi urtean eutsi zion bere lan-taldeari, eta mugikorretarako bideo-jokoak egiteko garapen-talde bat ere osatu zuen. Abraham Vélez programatzaileak eta Guillermo Pérez Larrauri grafistak osatutako talde hark urtebete eman zuen *Gigolord* izeneko bista isometrikoko abentura grafikoa lantzen.

Ibon Tolosana programatzaileak azaltzen duenez, Symbian sistema eragilerako eginda zegoen bideo-jokoa. «Arrazoiren batengatik iraganera bidaiatzen zen morroi bat zuen protagonistatzat. Bere abenturan, emakume guztiak limurtzen saiatzen zen, *Leisure Suit Larryren* (Sierra Online, 1987) estiloan». Ibarrondok gogoratzen duenez, «Amenarekin hitzarmen bat geneukan, oso aurreratuta zegoena, haiek sustatutako telefonoetako batekin abentura grafiko bat ateratzeko eskusiban». Tolosanak gehitzen duenez, «istorioa telefonora deskargatzeko moduko sei-zazpi kapitulu bere gainetan ateratzeko asmoa geneukan».

Proiektu biak Game Proren bulegoetan gelditu ziren. Alatristeren bideo-jokoaren kasuan, lehen zirriborro grafikoa eta protagonistaren modelatzeren bat egin bazen ere, azkenean «ez genuen lortu aurrekontua osatzerik». Estudioko nagusiak dioenez, «ezin izan genuen egitasmoa behar bezala amaitzeko adina bermerik lortu».

Mugikorrerako jokoari dagokionez, *Juegóneko* CTOak dio lehen kapituluaren erdia egina zeukatela. Bertan «Gigolord, bere armadurarekin jantzita, Erdi Aroko gaztelu bateko pasadizoetan gora eta behera ibiltzen zen, gortesauak limurtu nahian». Mugikorrerako bideo-jokoa bertan behera utzi aurretik, Abraham Vélez gaixorik egon zen luzaroan lanera joan ezinda, proiektua guztiz geldituta zegoelarik, horren ondorioz. «Bitarte hartan, teknologia eta mugikor berriak ziztu bizian aurreratzen ziren eta, sei hilabete pasata, jokoa zaharkituta gelditu zen», gogoratzen du Game Proko gerenteak.

Bideo-joko hezigarriak

Imanol Ibarrondok ez zuen amore eman nahi eta hantxe jarraitzen zuen negozio-aukera berrien bila, *Toreroren* garapenaren azken zatia eta *Juegónen* zati handi bat bolada batean behintzat finantzatu ahal izateko.

«Ordurako bideo-jokoen hirugarren lerro bat sortua geneukan, nominak ordaintzen jarraitu ahal izateko. Bideo-joko hezigarriak egiten hasiak ginen», gogoratzen du.

EUROABENTURA

Bideo-joko hezigarrien lerroko lehen titulua 2001ean sortu zuten. Teófilo Jiménez Game Proko presidente eta EBM Principia FCR³² arrisku-kapitaleko funtseko arduradun nagusiak euroari buruzko joko bat sortzea proposatu zuen, moneta berria 2002ko urtarrilaren 1ean baitzen zirkulazioan sartzekoa Espainian. Joko erraz eta hezigarri bat egin nahi zuten, gaztetxoek euroak erabiltzen ikasi eta, bide batez, matematika landu zezaten.

Garai hartan, Game Proko lan-taldeak guztiz murgilduta zebiltzan *Torero* jokoa eta *Juegón* plataforma martxan jartzen, eta konpainiako arduradun nagusiak *Euroabentura* bideo-jokoaren garapena azpikontratatzeari proposatu zuen. Alfredo Requejo bilbotarraren eskuetara iritsi zen lan hura, enpresak enkargu bat eskatua baitzion bi urte lehenago³³.

Requejok hiru hilabete egin zuen *Euroabentura*, Macromedia Director softwarea erabiliz. Ibon Tolosanaren esanetan, «software txukun samarra zen» garairako, eta dioenez, «grafikoak eskuz eginda zeuden, kolore askorekin eta akabera soil batekin, sei-hamabi urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta baitzegoen jokoa».

Euroabentura 2001ean aurkeztu zuten, eta BBK, Caja Duero eta Caja Mediterráneo-ri saldu zieten, besteak beste. Ibarrendok *Estrategia Empresarial* egunkari ekonomikoan adierazi zuenez, «jokoaren 180.000 ale zabaldu ziren guztira».

32. Bost aurrezki-kutxek osatzen zuten EBN Banco de Negocios bankua. Hori ikusita, bezeroentzako sustapen- eta marketin-tresna bat eskaini nahi izan zien Game Prok, pezetatik eurorako aldaketa lantzeko.

33. Alfonso Luzuriaga 3DNews TVko zuzendariak Game Prorekin negoziatu zuen, *Estropadak* (2000) bideo-jokoaren programazioaz arduratu zedin. Imanol Ibarrendok dioenez, «dirua ongi etortria zen, baina ez geneukan inor gure lan-taldean lan hori egiteko, eta, beraz, Alfredo Requejo azpikontratatu genuen». Xehetasun gehiago: *LOAD: Euskal bideo-jokoen historia (1985-2009)* liburuko 5. kapituluan.

Euroabenturak izan zuen harrera ona joko hezigarrien garapenera bideratutako ekimen berri bati zabaldu zizkion atea. «Azterketa bat egin, eta ikusi genuen erakunde publikoek aurrekontu txikia izaten zutela mezu sozialeko bideo-joko hezigarrietan gastatzeko», azaltzen digu Ibarrendok. «Joko haiek egiteko kostua ez zen oso handia, gainera, 30.000 euro ingurukoa. Aurrekontu hori erraz berreskuratu genezake, joko kopuru handia salduz gero, alea hiru euroan».

RECICLATOR

